

Baina arrazoimenaren piramide-tenplu-faroak gazteluaren itxura hartzen du sarritanago: talde bakoitzak bere burua babesteko eta etsaien kontrako gurutzada organitzatzen.

Arrazoimenaren erlijioak bere ebanjelioa du: Arrazoimenaren erreinua! Bere tenplua, Arrazoina Jainkosa gurtzeko: honen irudia (idoloa!), berriz, alderdi bakoitzak jarri duena nor bere burua. Bere misio-kanpainak: alderdi bakoitzak bere politikaren arrazoiotasuna predikatzen...

Baina baita bere gurutzadak ere. Eta honetan ere, alderdi bakoitzak bere gurutzada mantatuta du, bakarka nahiz aliatuak aurrera eramateko, inguruko irrazionaltasun-erreinuaren kontra. Horretarako aldi bakoitzean, bakarka nahiz aliatuak, talde bakoitzak bere etsai irrazionala non dagoen definitu beharra dauka; eta inguruan agertzen ez baldin bada, sortu egin behar.

Herexek behar ditu arrazoimenaren ortodoxiak; eta jakina da, ortodoxiak sarritan sortu edo asmatu egiten dituela herexiak, bere gaztelua segurtatzeko. Horretan dabilta aspalditik gure alderdi politikoak, eta hauen atzetik hainbat "alderdi" sozial eta kulturazko.

#### Estatisten gurutzada

Ez da gaurkoa, Aldealdi estatistikez eskual nazionalismoa irrazionalismoztat jotzea. Aspaldiko La lucha de Clases aldizkaria irakurri duten PSOEtarrek oso ezagunak dituzte honelakoak: "la sinrazón del separatismo bizkaitarra"; "el separatismo bizkaitarra es... la locura de cuatro necios"; Arana Goiri "debe ser un loco o un perverso", etab. (Gehiago nahi dituenak, Joxe Azurmendiren PSOE eta Euskal Abertzaldetasuna eta Espainolak eta Euskaldunak liburuak irakurtzea aski du).

Horrelakoak oso gaurkoak dira ordea PSOEtarren eta UCDtarren ahotan. (Fraga eta Blas Piñar alde batetara utzirik ere). Hau da: espainolistentzat eta estatulentzat, eskual abertzaldetasuna (nazionalista burgesena nahiz abertzale sozialistena) zorakeria da, irrazionaltasunaren fruitua. Eta horren kontrako gurutzadarako armak beti prestatuak dauzte, une egokian ateratzeko moduan. Nahiko nabarmenak izan dira LOAPA dela eta, esan dituztenak. Eta oraindik ez da legegari hori Gortean eztabaidatu! LOAPAren aldekoen arrazionaltasunak, horren kontra dauden irrazionaltasuna salatzen du, besterik gabe nonbait. Arrazionaltasuna banatu ezina bide da honelakoetan.

*El domingo pasado se ponía de manifiesto la escalada de los partidos que operan en el País Vasco, por ocupar la cumbre de la pirámide de la racionalidad. Pero el reverso del culto a la "diosa Razón" es la cruzada contra la irracionalidad que han lanzado los ocupantes del "templo" ahora convertido en fortaleza. Esta cruzada se desarrolla como a dos niveles: ante todo, son los partidos y las fuerzas estatistas, para quienes en nombre de la "razón de Estado" hay que descalificar y perseguir a los "nacionalistas" y "separatistas" irracionales; a un segundo nivel, son todas las fuerzas reformistas e institucionalistas, tícticamente aliadas, las que en nuestro pueblo tratan de destruir en guerra santa a los rupturistas, condenándolos a la hoguera de la irracionalidad. Para preparar y justificar su cruzada y su inquisición, ante todo se trata de localizar y desfigurar a ese enemigo muy concreto como monstruo de la irracionalidad: visceral, fanático, irrealista, sentimental, necrófilo, mitómano y dogmático.*

## el tópic de la racionalidad (II)

### irrazionaltasunaren aurkako gurutzada

Estatistak "nazionalisten" kontra aurrez-aurre daudenean, "Estatu-arrazoinak" agintzen du; eta haiek "Estatu-sena" duten bezala, besteek ez dute horrelakorik, eta arrazoin onik gabe eta sen onik gabe geratu dira: zorakeriaren eta irrazionaltasunaren politikan dabilta, beraz, "nazionalistak", "Estatu-politikaren" kontra dabilta.

Baina ez da hori bakarrik. Nazionalitateetako ("nazioetako") alderdiak hauteskundeetan indarra hartzea bera irrazionaltasunaren garaipena da. Begi aurrean daukat Pedro Altares-en artikulua bat, 1981eko urriak 24koa. El Laberinto du titulua, eta El País-ek argitaratu zuen. Begira zer dioen: "En 1977... los electores sacaron un Parlamento equilibrado y racional..."; baina 1979an galtzen da nonbait arrazionaltasun hori, behegaro adierazten duenez: "Las siguientes legislativas, en 1979, no modificaron sustancialmente ese panorama, si bien ya aparecieron otros síntomas (como el ascenso de los nacionalistas, incluidos los movimientos más radicales, en las nacionalidades históricas)..." Irrazionaltasunaren gorakada, beraz.

Ondorioa: Estatua goreneko arrazointzat jarri denean, "estatista" ez dena arrazoinaren kontra doa.

#### Erreformisten gurutzada

Baina irrazionaltasunaren kontrako gurutzada ez da estatisten monopolioa. Euskal Herri honetako indar instituzionalistek "anti-instituzionalisten" kontra, erreformistek "rupturisten" aurka zabaldu nahi dute arrazoimenaren gurutzada, beraien ere parte hartzeko: instituzionalista estatalistekin elkarturik, noski.

Ez dira aipu asko behar; batzu aski dira, nahiko argigarri direnak, aurreko artikuluan aipatutakoaz gain. 1979an gaude: apirilak bost, udal-ahustekundeen biharamonean. Ruiz Olabuenaga soziologoak

(PNVren soziologoa bera?) haien interpretazioa ematen du: Herri Batasuna-ri emandako botua "de los hijos de la ira" da, "el voto de la frustración, desencanto e impaciencia"; eta PNVri emandako botuari kontrajartzen zaio, hori "el voto de la fuerza de la razón que convence y vence frente al de la fuerza del arbitrio que vence pero no convence" bait da. Ia-ia tiro batez bi etsai irrazional botatzen ditu PNVren irrazionaltasunak: Herri Batasuneko amorratu eta buruberoena eta bestelako indar estatista irrazoingabeena. Baina autore berak esana zuten hilabete lehenagoko artikuluan eta, "Los hijos de la ira" izenekoa eta "Deia egunkarian argitaratua hori ere, hauteskunde orokorren biharamunean: "Tal vez no sea equívoco decir que el PNV representa el derecho del pueblo vasco y HB la ira por la violación de ese derecho". Jakina, "derecho, zuzenbidea" arrazoimenaren goreneko fruitua da; "ira-amorrua", berriz, jokabide irrazional eta burugabeen sustraia!

Bitxia da egoera, ordea Euskadiko Ezkerrak une berean, beretzat hartu nahi bait du arrazionaltasunaren bandera; "El electorado que nos ha votado ha votado un proyecto racional y los que se han inclinado por Herri Batasuna tendrán que optar por una salida política y, en esa medida, se irán acercando a nuestro proyecto, una vez que se pase la calentura represetada por UCD con intenciones electoralistas" (Deia, 1979-III-3). Mario Onaindiak esana.

Eta ordukit honuzta Euskadiko Ezkerrak arrazoimenaren eskalada politikoa egin nahi izan du, Herri Batasuna irrazionaltasunaren amildegira kondenatuz edo. Eta ez diote honetan gutxi lagundu Espainiak indar estatistek, Mario Onaindiari Arrazoimenaren monumentua egite-raino iritsiz: "Mario Onaindia, la razón vasca" (Interviú). Baina hau-

teskunde "zoritzarreko" haietatik hasia zuten euskaldun arrazional eta irrazionalen arteko bereizkuntza manikeoa. El País egunkariak bertatik (1979ko martxo 17ko editoriala): Alde batetik, "la irracionalidad y el emocionalismo del mensaje que transmite a sus electores Herri Batasuna"; bestetik, "Euskadiko Ezkerra, cuya evolución hacia posiciones más racionales y pacíficas dentro del independentismo es visible desde hace varios meses y abiertamente elogiable desde supuestos demócratas".

Hara! Independentismoaren barruan ere argi daiteke nonbait irrazionaltasunaren izpiran bat. Bata eta bestea —euskal independentismoa eta arrazionaltasuna— ezkontezinak zirela usteazaitza geunden, gu gizajook! Madrildik dator oraintan esperantza...

Baina horretarako bereizketak egin beharra dago: alde batetik, independentista zoro eta burugabeak, irrazionaltasun absolutuaren mundura baztertzeko eta kondenatzen diren bihurtzeko, beste batzuri independentismo burutsu eta zentzuzkoa aitortzen zaie: beren independentismoa bigundu eta ixilduko duten esperantzarekin, noski. Ba dirudi, arrazionaltasunaren aitorea baina gehiago eskaintzea eta promesa egiten zaiela horiei, beren aldera erakartzeko eta "gurutzatzen" harmada zabaldu eta indartzeko. Honela ulertu behar da, azken urteotan Euskadiko Ezkerrari beste gurutzatuek jo dioten sirena eta egiten dioten arrazionaltasun publikizitatea. Eta ez da, ez, bera, publizitate horrekin lotatu, eta bai horretaz ongi baliatu; arago, bere fama farnatzen saiatu da, bere arrazionaltasunaren predikari bihurtuz eta irrazionalen kontrako gurutzadan beste burkideekin leihakatu.

**Horra hor gurutzien etsaia!**  
Piramidearen erpinetik —edo gazteluaren dorretik— hasita, alderdi bakoitzak bere gurutzada partikula-

rreko armak prestatuak dauka, behar den garaian, "beheragoko" irrazionalkeriaren arrazoimenaren tenplua garbi edukitzeko.

LOAPAK edo LAUAK, Aberti egunak edo Alderdi egunak, OTANak edo Lemoz-ak direla, hor agertu ohi dituzte nor bere arrazionaltasuneko ezkatuak eta beste irrazionaltasunaren kontrako geziak.

Baina unean uneko eraso horiek aparte, aspalditxo arrazoimenaren inperio honetako erregeak eta printzeak, konteak eta dukeak —irakur: estatistak eta nazionalistak, zentralistak eta autonomistak, pesoetarak eta pecetarak, "zentrokoak" eta "ezkerrekoak"—, denak elkartu dira aliantza taktiko honetan, irrazionaltasunaren etsai handiaren aurkako gurutzada aurrera eramateko: denen artean.

Gerra irabazteko, aurrenik etsaia ondo ezagutu beharra dagoelako, denen artian horren irudi zehatza (?) emana dute: zazpi burutako bi draren itxura du munstro kolektiboa horrek. Berriki eman du El País-ek horren deskripzio sintetiko: "Aberante conglomerado de apologistas de la violencia, revolucionarios verbalistas, sabinianos intransigentes, tercermundistas sin causa y mutantes del carlismo" (azarokak 3).

Zazpi burutaz berriz, hidra itxuragabea baina hilezkorren zazpi bizioburuak irudikatzen dituzte; izan ere:

— "Biszerala" da: bere grinaren errietatik ateratzen duen oihua du bere indarra, eta ez argudio burutsuaren argia.

— "Buruberoa" da: "amorraren semeen", fanatismoaren itsutasunaz burua galdu dutenen multzoa.

— "Irrealista" da: utopiaren eta milenarismoaren amets burugabeen bila bait dabil.

— "Sentimentala" da: ez buruko hoztasun arrazionalak, eta bai bihotzeko emozionalismo irrazionalak eragina.

— "Nekrofilioa" da: odolberoa eta odolzalea, bere oldarkotasunaren itxarpen menpekoa.

— "Mitomanoa" da: sinbolo ilunen bidez bizi dena, eta ez ideia argien bidez.

— "Dogmatikoa" da: negozioz burutsuak eta jokabide demokratikoak ezagutzen ez dituen.

Horixe da etsaia! Gurutzatu burutsu guztiak fedegabe irrazional horren atzaparretatik gure Herria askatu nahian dabilta. Horretarako, hidra horren buru hilezkorra hil behar.

Horitan da irrazionaltasunaren aurkako gurutzada.

JAUSORO